

BAKARDADEA

Ane Mugica Txurio

Oiartzun

Bakardadea lagun zorrotza
orain daukat lagun mina.
Eskertuko nuke hau guztia
izan dadila ipuina.
Baina ez dut hori gertatzeko
zorte adina.

Bakardadea lagun zorrotza
hutsik dago nire ondoko gunea.
Bete behar dut
barruan dudan hutsunea.
Laguntza bila hasi behar dut,
jada ez naiz umea.

Bakardadea lagun zorrotza
ez nuen nahi harrapatzerik.
Baina azkenean
irabazi egin dit.
Lur jota nago
ez dut nahi berriro gertatzerik.

Bakardadea lagun zorrotza
bakarrik nago.
Ez dakit zer egin,
indarrik gabe bainago.
Horrela ezin dut jarraitu
nago geroz eta ahulago.

Bakardadea lagun zorrotza
nirekin dago.
Ni nauka bere besoetan
harrapatuta zeharo.
Momentu honetan
galduta nago.

Bakardadea lagun zorrotza
orain nik daukat.
Buruan
konponbiderik ez daukat.
Norbaitek
lagunduko balit pixka bat.